

# OINARRIZKO ERRENTAREN XIII. SINPOSIOA

2014KO URTARRILAK 31 ETA OTSAILAK 1

Donostia Andia kaleko aretoa. Sarrera librea



Beste politika ekonomiko baterako proposamen konkretuak



## 2014ko urtarrilak 31, ostirala

### **15:00etan. Jardunaldien aurkezpena**

Ander Rodríguez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatua.

### **15:30ean. “Diez años del Programa Bolsa Familia y la perspectiva de la Renta Básica Ciudadana”.**

Eduardo Matarazzo Suplicy, senataria eta Brasileko langileen partiduko ordezkaria Sao Pauloko Estatutik.

Bolsa Familia deitutako errenta transferentziarako brasildar programa Lula da Silvaren lehen gobernuak ezarri zuen 2003an. 10 urte egin berri ditu eta 13,8 milioi etxeri laguntzea lortu du. Munduan dagoen halako programa handiena da. Bolsa Familia programak 36 milioi brasildar muturreko pobreziatik atera ditu, baina gizarte mugimendu ugariaren kritikak ere jaso ditu asistentzialtat jo delako.

### **16:00etan. “La RB en una situación de ataque contra las condiciones de vida y de trabajo de la mayoría de la población no rica”.**

Daniel Raventós, Red Renta Básicako presidente eta fundatzailea.

Desoreka ekonomiko handiek galarazi egiten dute gehiengoaren askatasuna. Botere pribatu bat gainerako guzti-  
iei edo gehiengoari bere borondatea edo, modu teknikoagoan, ongiari buruz duen ideia inposatzeko adinakoa  
denean, gehiengo horren askatasuna larriki erasanda gelditzen da. Ekonomia eta politika ezin dira bereizi.  
Aberatsek irabazi egin dute aspaldiko urteetan ezartzen ari diren neurri ekonomikoei esker. Populazioaren ge-  
hiengoa, berriz, galtzen ari da. Oinarritzko errentaren proposamena, hau da biztanleria osoari bizitza materiala  
bermatzeko proposamena, gizartearen gehiengoarentzat onuragarria izan nahi duen politika ekonomiko baten  
zati izango litzateke.

\*\*\*\* 16:30ean. Atsedena \*\*\*\*

### **17:30ean. “Una propuesta de financiación de una Renta Básica en Gipuzkoa”.**

Jordi Arcarons, Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedraduna.

2010 eta 2011ko Gipuzkoako zerga datuak (PFEZ) oinarri hartuta, Gipuzkoako herritar guzti-  
ei oinarritzko errenta bat finantzatzea proposatzen da. Zenbateko hori ez da zergapetua egongo, baldintzarik gabe jasoko da eta Gi-  
puzkoako herritar guztiarentzat eta Gipuzkoan bizi direla egiaztatzen duten guztiarentzat izango da. Finantzaketa  
proposamenak aukera emango du neurri horrek izango duen birbanaketa eragina eta onuradun suertatuko diren  
populazio taldeak aztertzeko.

## 18:00etan. SIMULAZIO MAHAIA

### **“Renta básica y redistribución del trabajo, ¿es deseable?” (30 min)**

Lluís Torrens, ekonomialaria eta Bartzelonako IESEko Public-Private Sector Research Centereko kudeatzailea.

Krisi ekonomikoak luze joko du eta ez dirudi egingarria denik ez eta komenigarria ere ekonomia berriz hazkunde espiral batean sartzea jende guztia denbora guztian okupatuta izatearren behar besteko lanpostu sortzeko, planetaren iraunkortasuna gehiago konprometitu gabe. Testuinguru horretan, gero eta gehiago dira errentaren banaketa justuagoan (oinarrizko errentaren bidez) eta gelditzen den ordainpeko lan urriaren banaketa justuagoan oinarritutako aldikako ekonomia defendatzen dutenak. Bi estrategia horiek konbinatuz erabat aldatuko litzateke ekoizpen eta banaketa ereduak: zero langabezia eta zero pobrezia.

### **“¿Es posible y viable económicamente financiar una Renta Básica en Catalunya?” (30 min)**

Jordi Arcarons, Ekonomia Aplikatuko katedraduna Bartzelonako Unibertsitatean.

2005ean, Katalunian Oinarrizko Errenta finantzatzeko proiektu garrantzitsu bat argitaratu zen. Azterlan horri esker, Oinarrizko Errentaren proposamena (Katalunian bizi diren guztientzako baldintzarik gabeko diru kopuru bat) ezagutzen zuten askok, baina hori finantzatzeko aukeren inguruan guztiz eszeptiko zirenek, iritziz aldatu zuten. Zerga datuak (PFEZ) oinarri hartuta, Kataluniako herritar guztiei oinarrizko errenta bat finantzatzeko proposatzen da.

### **“Problematizando la imposición personal directa. El ejemplo vivo de Gipuzkoa”. (30 min)**

Txema Mendibil, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboko presidentea.

Errentaren, aberastasunaren eta sozietateen gaineko zergei dagokienez pertsona fisikoetan (benetakoetan) zuzeneko zergapetzea ezartzea aztertzeke orduan ezkerreko alderdiek topatzen dituzten arazoak eta bidegurutzeen berri eman nahi da. Betiere, proposamen horren eta gizarte babesaren eta/edo oinarrizko errentaren proposamenen arteko erlazioa azpimarratuz.

### **Mahai-ingurua. (30 min)**

Moderatzailea: Isidro Esnaola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzuetako eta Zerga Heziketako zuzendari nagusia.

\*\*\*\* 20:00etan. Jardunaldiaren amaiera \*\*\*\*

## 2014ko otsailaren 1a, larunbata

### 09:00etan. FEMINISMO MAHAIA

#### “La Renta Básica: un eje de construcción de la libertad femenina”.

Carme Porta, Kataluniako Parlamentuko diputatu ohia eta feminismoaren inguruko argitalpen ugariaren egilea. (50 min)

Emakumeek paper bikoitza bete izan dugu, eta lansaio bikoitza errealtate diskriminatzailea izan da hainbat arazoirengatik. Ordaindutako esparru publikoan, emakumeek eta gizonen ez ditugu baldintza berak lanerako sarbideari, ordain-sariei, lan baldintza eta abarrei dagokienez. Pertsonen zaintzari dagokionez, gutxietsitako lan bat izan da, gizarte mailan ikusezina, ama eta emazte rolari lotuta dagoena. Krisi ekonomikoak gordindu egiten ditu faktore horiek. Diskriminazio goerak gaintu al daitezke Oinarrizko Errentarekin? Emakumearen askatasuna eraikitzeko elementu bat al da?

#### “Miradas ecofeministas para habitar un planeta con límites”.

Yayo Herrero, antropologoa, gizarte hezitzailea eta nekazaritza ingeniari teknikoa. FUHEMeko zuzendari nagusia. (50 min)

Mendebaldeko gizarteak XXI. mendera iritsi dira bizitzari eusten dioten oinarri materialen aurka jarrita. Ekomendekotasunak eta elkarren mendekotasunak, gizakiaren berezko ezaugarri direnak, ez dute zerikusirik mundua ulertzeko eta bertan jarduteko erabiltzen ditugun subjektibitatearekin eta irudikapen mentalekin. Ekofeminismoak lagundu dezake alderdi ikusezin eta gutxietsi horiek bistaratuko dituen ikuspegi diferente bat eratzen, izan ere, alderdi horiek ezinbestekoak dira oso litekeena dirudien kolapsoa saihestuko duen trantsizio bat hasi nahi bada.

**Mahai-ingurua** Moderatzailea: Laura Gómez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendaria. (45 min)

\*\*\*\*11:30ean. Atsedena\*\*\*\*

### 12:00etan. OSASUN PUBLIKOAREN MAHAIA

#### “Políticas de austeridad, salud mental y renta básica. Sergi Raventós”.

Buru osasun, gizarte desberdintasun eta oinarrizko errentan aditua. (40 min)

Krisi ekonomikoak eta gure inguruko gobernu gehienak ezartzen ari diren austeritate neurriek larriagotu eta areagotu egiten dute langabezia maila, laneko segurtasun eza, prekarietatea, etxebizitza falta, ongizate eta gizarte babeseko sistemen hondatzea, etab.; eta horrek biztanleriaren artean buru osasuneko arazo askoren larriagotzea eragin du, zenbait kasutan modu dramatikoan azaleratu izan direnak suizidioen edo suizidio-saioen bitartez, baina gehienetan antsietatearen eta depresioaren sintomak agertu ohi dira. Sintoma horiek modu nabarmenean areagotu dira eta oraindik ikusteko daude horrek datozen urteetan izango dituen ondorioak. Oinarrizko errenta gizarte babeseko elementu ona izan daiteke egoera horiei aurre egiteko.

#### “La mercantilización de la sanidad pública y el derecho a la Renta Básica”.

Alex Boso, CIEMATeko doktoretza ondoko ikerlaria eta Pompeu Fabra eta Vlceko unibertsitateetako irakaslea. (40 min)

Gaur egun, oso garrantzitsua da ikertzea osasun publikoa merkaturatzeko egin diren saioak, horretarako egon diren arazoak eta ekarri dituen ondorioak kontuan hartuta. Helburua da kalitateko osasun zerbitzu publiko bat izateko eskubidearen inguruko eztabaida politikotik irakaspen batzuk ateratzea, baliagarriak izan daitezkeenak herritartasuneko oinarrizko errentaren proposamenaren aldekoentzat.

\*\*\*\*13:30ean → Sinpsioaren amaiera \*\*\*\*